



ADMINISTRATIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, ERANDIOKO PONPAKETAREN TRANSFORMAZIO-ZENTROA BERRITZEKO OBRA KONTRATATZEKO. ESPEDIENTE-ZK.: 3291.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	AITOR EZEIZA VIRUMBRALES
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zenbakia: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.
1.- Kontratuaren xedea: Memoria honen xedea da Erandioko ponpaketaren TRANSFORMAZIO-ZENTROA BERRITZEKO OBRA kontratatze beharra justifikatzea. 2.- Bete beharreko premiak: Instalazioa 1989. urtekoa da, eta haren bizitza erabilgarria amaitzen ari da. Azken urteotan ozonizazioa dela-eta konponketa ugari egin dira (isolamenduaren galera). 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Obrak honako baldintza hauek ditu: • Obra martxan dagoen instalazio batean egiten da. • Obrak zerbitzuari eragiten dio. Une jakin batzuetan horniketa eten egin beharko da obra egiteko. • Zenbait egunetan, instalazioa saretik deskonektatuta egongo da edo 40 kW-eko larrialdietako horniketa bakarrik izango du, eta tentsio-iturria ekipo elektrogeno bat izango da. Egoera larri hori dela eta, komeni da kontratisten arteko koordinazio-arazoak saihestea. • Ekipo elektrogenoak ponpa txiki batek eta osagarriek funtzionatzeko aukera baino ez du emango, hori dela eta, eguraldi lehorra dagoenean egin behar da. Zaila denez instalazioa energia elektrikoa banatzeko saretik deskonektatuta dagoen fasean lan egitea, hobe da obra lizitatzailerak bakar batek egitea, hain fase kritikoan atzerapenak saihesteko.
4.- CPV: 45232423-3 Hondakin-urak ponpatzeko zentralak eraikitze lanak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA EURO (272.000,00 €), BEZik GABE.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 272.000,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Aleko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 623.02 – 169.33. - 2027. URTEA: 272.000,00 €	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez. Hilabete bakoitzean ziurtatutako partiden % 10 atxikita, honako helburu hauek bete arte: - Instalazio elektriko osoa legeztatzea – % 5 - Azken dokumentuak jasotzea. Jabeak gutxienez 2 aste izango ditu egiaztatzeko. – % 5	
8.-Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: HAMAR (10) HILABETE.
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.- Berme-epea: 2 urte
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren instalazioak - Erandio
6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena —amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumenik handiena izan duen urtea— kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez. (272.000,00 €)



G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken 5 urteetan egindako obren zerrenda —kontratuari dagokionaren sailkapen-talde edo -azpitalde berekoak direnak, edo kontraturako garrantzitsuena den talde edo azpitaldekoak—, baldin eta kontratuak hainbat azpitalderi dagozkien lanak jasotzen baditu, eta haien urteko zenbateko metatua, gehien gauzatutako urtean, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada: 190.400,00 €.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

- Goi-tentsioko instalazioetarako enpresa instalatzaileak.
- Goi-tentsioko 30 kV-eko aireko edo lurpeko lineetarako instalatzaile baimendua. LAT1 kategoria.
- Altueran lan egiteko aukera izan behar du (tentsio ertaineko lineetan)
- 30 kV-eko lineetan tentsio-lanak egiteko gai izan behar du.
- "Elite" (IAS) ziurtagiria izatea, edo hura duen enpresa bat azpikontratatzeari SCADA programatzeko.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, hautazkoa ☐ Ez

Taldea, azpitaldea eta kategoria: I. TALDEA - 5 - 2

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen araberrako irizpideen dokumentuak.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

- 1. dokumentua. Eskainitako materialak. Eskainitako materialen ezaugarriak, marka eta erreferentzia adierazi behar dira:
 - Transformadorea.
 - Kableak eta haien suarekiko portaera, eskatutakoa zerbait hobetzen bada.
 - "U" formako besarkagailu, eta zirkuitulaburren kasuan jasandako esfortzuen ezaugarri mekanikoak.
 - Euskarriak eta tramexa.
 - Urruneko unitatea (PLC), kontrol-koadroa eta haren osagaiak.
 - Kanalizazio elektrikoa
 - Tresneria elektrikoa.
 - Koadroen eta maniobra-elementuen etiketak.
 - Barruko eta kanpoko pintura.
 - Argi arruntak eta larrialdietakoak.
 - Poto kondentsatzailea eta gaintentsio iragankorren aurkako babesa

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- 2. dokumentua. Gelaxken ezaugarriak.
 - Gelaxken ezaugarri orokorrak. Fabrikatzailea eta erreferentzia.
 - Katigamendu mekanikoak, batez ere neurketa-gelaxkakoak.
 - Tentsio-transformadoreen potentzia termikoa.
 - Tentsioa duen posizio bat lurrarekin konektatzea ekiditeko adierazpen akustikoak.
 - Tentsioaren presentziari buruzko argi bidezko adierazpenak.
 - Autobalbulen antolamendua eta ezaugarriak.
 - Gelaxka bakoitzaren barne-arkuaren ziurtagiria, neurketarena barne.
 - Erabiltzeko eta muntatzeko argibideen eskuliburua.
 - Ekipamenduaren eskema elektrikoak eta mantentze-lanen dokumentuak.
- 3. dokumentua. Antzemandako akatsak adierazi behar dira, baita haiek konpontzeko proposatutako modua ere; akatsei dagokien obra-unitatean balioetsiko dira.
- 4. dokumentua. 30 kV-eko sareko konexiorik gabeko denbora adierazi behar da (tentsiorik gabe edo ekipo elektrogenoarekin funtzionatzen). Denbora horretan, langileek zer ordutegi izango duten.
- 5. dokumentua. Obra gauzatzeko baliabide osagarriak.
 - Obran zehar, ponpaketak elikatzeke zer energia-iturri izango duen argitu behar da, baita haren ezaugarriak ere. Lana nola egingo den zehaztu behar da, baita zer horniketa-eten egongo diren ere, konponbidearen arabera.
 - Era berean, dagoenak huts egiten badu, bestelako ekipo elektrogenorik izango den adierazi behar da.
 - Alarmaren ezaugarriak eta obran zehar CRA zerbitzua nork emango duen, eta tiro eginez gero Ertzaintzari abisua emateko prozedura.
 - Jarduerarik ez dagoen bitartean edo obrako langilerik ez dagoen bitartean langileen bidezko zaintza izango den adierazi behar da.
 - Obra egiteko argi eramangarrien ezaugarriak eta tentsio-iturria adierazi behar dira.
- 6. dokumentua. Obrak irauten duen bitartean, edozein arazori aurre egiteko laguntza-taldeak izango dituen baliabideak eta erabilgarritasuna zehaztuko dira.
- 7. dokumentua. Tentsioan jarri aurretik, fabrikatzailearen LTZk gelaxkei in situ zer saiakuntza egingo dien adierazi behar da.
- 8. dokumentua. Obra amaitu ondoren mantentze-lanak kosturik gabe eskaintzen ote diren adierazi behar da, baita zerbitzuaren irismena eta iraupena ere.
- 9. dokumentua. Berme-epea luzatzen ote den eta haren irismena zein den adierazi behar da.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskinaren ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Kontratista bakoitzak kontratuaren preskripzio tekniko partikularren agiriaren taula bete behar du bere banakako prezioekin.

Prezioetan Kostu Orokorrak eta Mozkin Industrialak sartu behar dira. Neurketa-unitateak kontratu honen preskripzio tekniko partikularren agiriaren 7. apartatuan deskribatzen denaren arabera ordainduko dira. Taula horietan adierazten da obra-unitateak prezio itxikoak direla eta zeintzuk ordainduko diren neurketaren arabera; prezio itxikoak "I" letraren bidez bereizten dira, eta neurtzekoak "N" baten bidez. Prezio itxiko unitateak obraren zati hori egiten denean bakarrik ordainduko dira.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak egiteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki egitea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordez kariak):
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordez karia):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 50 puntu lor daitezke.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < B_i \leq 0,6 \times BM$

$$P_i = \frac{B_i}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < B_i \leq 0,8 \times BM$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

- Memoria teknikoa: 30 puntu.

○ Eskainitako materialak (gelaxkak izan ezik). 20 puntu.

- Transformadorearen ezaugarriak.
- Suaren aurkako ezaugarriak agindutakoak baino hobeak dituzten kableak.
- “U” formako besarkagailu, eta zirkuitulaburren kasuan jasandako esfortzuen ezaugarri mekanikoak.
- Euskarrien eta tramexen ezaugarriak.
- Urruneko unitatearen ezaugarriak (PLC), kontrol-koadroa eta haren osagaiak.
- Kanalizazio elektrikoaren ezaugarriak.
- Tresneriaren ezaugarriak eta fabrikatzaileak.
- Koadroen eta maniobra-elementuen etiketen ezaugarriak.
- Barruko eta kanpoko pinturaren ezaugarriak.
- Argi arrunten eta larrialdikoen ezaugarriak.
- Poto kondentsatzailearen eta gaintentsio iragankorren aurkako babesaren ezaugarriak.

○ Gelaxken ezaugarriak. 5 puntu.

- Kalitateak, erabilitako materialak, gainazalen akaberak, pinturak, dimentsioak, konektoreak, kableen sarrera eta irteera gelaxka eta sekzioetara, osagarriak, ordezkoko piezen bermea, merkatuan luzaroan egongo diren materialak eta abar.
- Katigamendu mekanikoak, batez ere neurketa-gelaxkakoak.
- Tentsio-transformadoreen potentzia termikoa.
- Tentsioa duen posizio bat lurrarekin konektatzea ekiditeko adierazpen akustikoak.
- Tentsioaren presentziari buruzko argi bidezko adierazpenak.
- Autobalbulen antolaketa.
- Erabiltzeko eta muntatzeko argibideen eskuliburua.
- Ekipamenduaren eskema elektrikoak eta mantentze-lanen dokumentuak.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Akatsak, kontraesanak edo hobetzeko alderdiak identifikatzea baldintzen agirian eta kontratuaren gainerako dokumentuetan. 5 puntu.
- Obran erabil daitezkeen bitartekoak: 17 puntu.
 - 30 kV-eko sareko konexiorik gabeko denbora (tentsiorik gabe edo ekipo elektrogenoarekin funtzionatzen) eta lanen jarraitasuna etengabeko presentziarekin. 6 puntu.
 - Obra gauzatzeko baliabide osagarriak. 6 puntu.
 - Obra egiten den bitartean ponpaketa energia elektrikoz hornitzeko irtenbidea.
 - Ekipo elektrogeno osagarria, dagoenak huts egiten duen kasurako.
 - Instalatuko den alarma.
 - Zaintza jarduerarik edo obrako langilerik ez dagoen bitartean.
 - Obra egiteko argi eramangarriak.
 - Laguntza-taldea. Baliabideak eta erabilgarritasuna. 3 puntu.
 - Gelaxken in situ egindako saiakuntzen deskribapena. Puntu 1.
 - Mantentze-lanak kosturik gabe obra amaitu ondoren, zerbitzu horren irismena eta iraupena. Puntu 1.
- Hobekuntzak: 3 puntu.
 - Berme-epea eta haren irismena luzatzea.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da aldea % 25 baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere,



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Ez da aplikatu behar

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

Atzerapenagatiko zigorrak

Iraupenaren mugarako ezarritako denbora baino gehiago atzeratuz gero, 200 euroko zigorra ezarri ahal izango da ordu bakoitzeko (200 €/h).

Eskainitako baliabideak ez edukitzeagatiko zigorrak

Kontratistak eskainitako bitartekoak eta irismena betetzen ez baditu, ez egitearen ondoriozko kostuekin zigortuko da, eta errenergua % 25 izango da. Lan horiek jabeek kontratatuko dituzte, prezioa galdetu gabe, baita administrazioak ere, adjudikaziodunaren edozein utzikeria konpontzeko.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK ENTREGATU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ



R.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Lanak zerbitzuaren beharrei lotuta egongo dira. Horregatik, BBUPk hala eskatzen duen bakoitzean (nahierara) eten edo atzeratu egin beharko dira. Aurrekoa urratzen bada, kontratua suntsitu ahal izango da.

Adjudikaziodunaren akats edo axolagabekeria batek sortutako matxura edo istripu larria kontratua suntsitzeko kausa izan ahalko da.

Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, kontratua suntsitu ahal izango da.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak teknikari bat izendatu behar du kontratua gauzatzeko, eta hura izango da kontratuaren arduradunaren solaskidea.

Eskaintzak egin aurreko bisitak

Kontratazio Sailaren bidez jakinaraziko den bisita bat antolatuko da, hala nahi duten lizitatzailaiei egun bat ezartzeko, haietako batek instalazioa bisitatu nahi duela adierazten badu.

Kontratua suntsiarazten bada

Kontratua suntsiarazten bada, jatorrizko proiektuan (lizitazioaren oinarria) erabat gauzatutako unitateen % 75 ordainduko da, eta prezio horiei kontratuaren baja aplikatuko zaie. Hau da, kontratuaren baja % 20 bada, ordaindutako unitate bakoitzaren zenbatekoa % 75*80 izango da gehienez, hau da, % 60. Gauzatutako proiektua aldaera bat bada, lizitazio-proiektuaren baliokide diren obra-unitateen gainean aplikatuko da.